

INGENIARITZA ELEKTRIKOA. ORAINA ETA ETORKIZUNA

- **Jakintza adarra:** Ingeniaritza eta Arkitektura
- **Campus:** Gipuzkoa
- **Ikastegi antolatzailea:** Gipuzkoako Ingeniaritza Eskola (Donostia)
- **Gradua/k:**
Ingeniaritza Elektrikoa
- **Garapen-lekua (helbidea):** Europa plaza, 1. 20018 Donostia

1. JARDUERAREN DESKRIBAPEN LABURRA

Proiektu honen helburua industria ingeniartzan interesatuta dauden Batxilergoko eta Lanbide Heziketako Goi Mailako Zikloetako ikasleengana gerturatzea da. Ingeniaritza Elektrikoko graduari buruzko azalpenak emango zaizkie, graduaren ikasketa-planaren ezaugarriak jakinarazteaz gain, etorkizuneko erronkak ezagutaraziz (sorkuntza banandua, ibilgailu elektrikoa, energia berriztagarriak, etab.), bai eta ikasketak amaitu ondoren izango dituzten lan-irteera profesionaleri buruzko informazioa ere.

2. LANDUKO DIREN GAIK/EDUKIAK

- Ingeniaritza Elektrikoko gradua: ikasketa-plana, praktikak eta laborategiak.
- Ingeniaritza Elektrikoaren etorkizuneko erronkak.
- Lan-irteerak/irteera profesionalak.
- Eskolaren harremanak lan-eremuarekin: bisitak ikasketetan zehar, inguruko enpresetan borondatezko praktikak eta Graduaren Amaierako Lana egiteko aukera.

3. EGINGO DIREN EKINTZAK

- Ikasketa-planaren eta titulazioaren lan-irteeren aurkezpena.
- Ingeniaritza Elektrikoko graduko ikasle-ohi edo/eta ikasle batekin taldeko elkarrizketa egingo da, bere ikasketa-bizikizunak eta laneko esperientzia azalduko dituelarik.
- Laborategiak erakutsiko zaizkie eta zenbait jarduera praktikoko egiteko aukera emango zaie.
- Irakasgai batzuen adibide praktikokoak erakutsiko dira.

4. EGUTEGIA ETA PLAZAK

Data	Hizkuntza	Txanda	Ordutegia	Plazak
2025-01-22	Euskara	Goizez	11:00 -13:00	16
2025-01-22	Gaztelania	Goizez	11:00-13:00	16
2025-01-22	Euskara	Arratsaldez	15:00-17:00	16
2025-01-22	Gaztelania	Arratsaldez	15:00-17:00	16